

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 177. alea - 2013ko abuztua



San Roke dantzak ukitu berezia izango du aurten




MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es


atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi Kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 918 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



IZENBE


- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA




GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



MAZZANTINI
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informática
Tresorería
informática

JE

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 96
Mugikorra: 686 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jic@informaticajelektronika.e.telefonico.net

Bordatxo
JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aftariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Joxe Ramon Larrañaga

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Banaketa arduraduna:

Juanma Oiartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Debako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO




Gipuzkoako
Foru Aldundia



SAN ROKEAK
2013:
Herriko jaietan
murgiltzeko prest
gaude dagoeneko.
Hemen dituzue
Gure Kaiko kideen
idatzia eta jaietako
egitaraua:
15-16-17

KOLABORAZIOA: Haika Aizpurua, "Berebila edo bere bila?". **05 ALBISTEAK:** Udara Kulturaz Blai eta 2013ko Euskal Jaia iragartzeko kartela. **07 KOLOREZ BLAI UDA-LEKUAK, IRUDITAN:** **08-09 KIROL KRONIKA:** Ehunmilak probaren kronika egin digu Igon Mancisidorrek. **11 LITERATUR LANAK:** Zuhatzak eta Mendata ikastetxeak antolatutako literatur lehiaketako lan sarituak. **12-13-14 ZERBITZUAK:** **18**





Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zabaletik San Rokera

Garai batean, bideak gizakiaren neurria egiten zirenean, auzolanean garbitu eta konpontzen zituzten; Udalarri lehegai-luak eta metxa eskatuz, konponketa serioak zirenean, edo ardo eta ogi razioak, auzotarren eskulanarekin txukuntzeko modukoak zirenean. Udala gorabehera hauen guztien jakitun izaten zen, zeren baimena emateaz gain, aipaturiko tresneriaz ere hornitzen baitzituen herritarak.

Sasoi hartako herri-bideak, garraio eta merkataritzarako erabiltzen zirenak, gure ondarearen parte dira, bizimodu baten lekuko isilak eta gure jatorriaren islada. Bertatik etorri ziren izurriteak, gerrak edo erasoak; baina, baita fedea, erromesak edo artoz zamaturiko zaldiak ere. Mendez mendez, gure gizartea gorpuztu eta harremanak sendotzeko ezinbesteko tresna izan dira. Ez dira hainbeste urte bide horietatik asto gainean ibili garela. Gaur egun, aldiz, baztertuta dauzkagu; batzuk sasiak eta ahazturak baztertu ditu, besteek, ibilbide

markatuak bihurtu diren arren, egoera penagarria erakusten diote bertatik igarotzen denari. Itziartik Debara jaitsi edo kontrako bidea egiteko modurik eroso, azkar eta babestuena da Zabaletik San Rokera dihoan herri-bidea. Erdi baztertuta, zementoaren mesederako, gero eta egoera tristeagoa eskaintzen dio ibilbide hori erabiltzen duenari: betelan basatiak, lurjausi itzelak eta sasia nonahi. Pistona azpiko zelai garbi eta zaindua kenduta, gero eta itxiago bilakatzen ari da mendeetan garraio bide jendetsuena izan den herri-bide hau.

Lerro hauen bitartez bi eskari egin nahi nituzke: bat Udalarri, dagokion arduraz joka dezan, guztion ondarea den bide eder hau txukundu eta markatuz; bestea, herritar guztiei, bide honek eskaintzen dituen aukerak baliatuz, gurea den ondareari bultzada bat eman diezaioten.

Xabier Laka

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!!

Esku artean daukazuen aldizkariaren ale honekin agurtzen du Zuhatza Euskara Elkarreak ikasturtea. Abuztuko oporrak direla eta, irailean ez dela **Berriketan**-ik kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein

oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ondo izan bitartean!

Zuhatza Euskara Elkarrea

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



HAIKA AIZPURUA

BEREBILA EDO BERE BILA?

Eguzkia irten da. Laino artean geneukan lotsatuta eta bazirudien aurtengo udak ez zuela bere bagoiarekin Debako geldiuenean agerraldia egingo. Baina uztailean zorionez geldiuena egin eta ateak ireki zirenean gurekin bat egin duela dirudi. Gustura dagoela ematen du eta bertan geratzeko asmoarekin dago oraingoz behintzat.

Berekin batera askok espero genituen udatiarrak ere azaldu dira. Santiago bidea egiten ari diren ehunka bidaiari egunero. Inguruko herrietakoak ere gurekin dauzkagu; bertan etxea dutenak eta baita egun pasa azaltzen direnak ere. Krisia albo batera geratu dela dirudi, nahiz eta horrela ez izan. Terrazak beteak, tabernak beste horrenbeste, elikagai dendak, arropa dendak, hondartzako izozkien postuak... denak lanpetuta eta pozik.

Badago, ordea, poztasun honen guztiaren atzean askok onartzen ez duten zerbait eta beste urtebetez ez dugu irtenbiderik topatu, aparkalekuak. Ondo pasatu eta disfrutatzerantz etorzen diren horien ondoan bertako jende langilea dago; egunero etxetik atera beharra dute eta buelta-koan kotxea non utzi ez dakite. Bazkaltzera etxera etortzen ez direnak ere asko dira, garajerik ez dutela-


ko eta euren ordu eta erdi librea kotxean ematen dutelako.

Arlo batzuetan aurrera egiten hasiak gara, euren artean Santiago bidekoak geratzeko aterpetxe berria, bertako nahiz kanpoko jendearentzat surf eskolak... baina beti ere arazo berdinarekin, APARKALEKUAK.

Ez gara konturatzen bertara etorri beharrean inguruko herrietara joaten zaizkigunak zenbat diren, hemen kotxea lagatzeko aukerarik ez dutelako. Goazen denon artean arazo horri aurre egitera. Garajea duenak bere ibilgailua barruan gordetzerik badu, herriari on egingo dio urteko garai honetan. Eta udalak inguruan dauden lurzoru batzuk prestatuko balitu egoera hobetuko litzateke.

Kanpotarrak erakarri behar ditugu eta ahalik eta zerbitzu onenak eskaini behar ditugu komertzioek urte gutxian zehar zabalik iraun dezaten. Herriarentzat, herritarrentzat eta inguratzen zaizkiguentzat egokiena topatu behar dugu. Beti ere herritarrak ahaztu gabe, nolabaiteko preferentziarekin.

Bide batez, GORA DEBA!!! GORA SAN ROKE!!! Ondo pasa herriko jaietan!





Debako Gazte Asanblada

Komikia



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel./Fax: 943 192 249
 Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
 sagarmina@sagarmina.com
 www.sagarmina.com

Jari zure publizitatea
 Berriktan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
 berriktan@zuhatza.com

AUKERA
 INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
 Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

Etxeko txikiak izan dira protagonista uztailleko astearteetan

Harrera polita egin zaie Zuhatzak "Udara kulturaz blai" lelopean antolatutako ekimenei



Aurten ere, haurrentzako hiru kultur ikuskizun antolatu ditu Zuhatza Euskara Elkarteak uztaillean. Hiru emanaldi, guztiak ere "Udara kulturaz blai" lelopean, uda partean herriko euskarazko aisialdi eskaintza aberastu eta etxeko txikiak protagonista egin nahian.

Lehenbiziko ikuskizuna uztailaren 16an burutu zen, Zirtaka antzerki konpainia bilbotarraren eskutik. Eguraldi eze-gonkorra iragarrita zegoela eta, Zumardian ospatu behar zen hitzordua Luzaro eskolako frontoi estalian egin zen azkenean. Harrera polita egin zitzaion "Maddi pirata" ikuskizunari, eta haurren esker oneko txalo zaparrada beroa lortu zuten antzezleek emanaldiaren amaieran.

Hurrengo bi ikuskizunak hilaren 23an eta 30ean (astearteak) burutu ziren. Kiki eta Koko pailazoen txanda izan zen lehenbizi, eta "Katapultxinpun Festa" ekarri zuten. Ekimena alaia eta parte-hartzailea izan zen oso, eta pailazoen azkar asko jarri zituzten kantuan eta dantzan haurrak zein helduren bat edo beste ere.

Uztailaren 30ean, berriz, Monda eta Lironda bizkaitarrak izan ziren Zumardian, "Baietz lortu" ikuskizunarekin. Eguraldi bikaina lagun, hurbildu zirenek arretaz eta umorez



jarraitu zuten antzezlan.

Urtero legez, Zuhatza elkarteak gustura dago ekimenei izan duten harrerarekin. Beraz, eskerrak eman nahi dizkie hitzorduetan parte hartu duten guzti-guztiei, alegia, elkartearen deialdiari erantzun zioten artista eta konpainiei zein, nola ez, emanaldietara hurbildu ziren herritar guzkiei. Mila esker!!!

Badugu 2013ko Euskal Jaia iragartzeko kartela!

Datorren irailaren 28an ospatuko dugu garai berriko XVI. Euskal Jaia. Urruti samar ikusten bada ere, Zuhatza Euskara Elkarteak abian ditu dagoeneko antolaketa lanak. Eta horren adibide da, besteak beste, uztaillean zehar antolatutako Euskal Jaia kartel lehiaketa.

Aurtengo edizioan zortzi lan aritu dira lehian. Lan guztiak uztailaren 19an egon ziren ikusgai plaza zaharrean, eta herritarrek bozka bidez hautatu zuten kartel irabazlea. Bozketan 619 lagunek hartu zuten parte guztira, eta 140 boto jasota irabazi du lehia Nere Oriak. Bigarren postuan Joseba Ander Madina gelditu da, 92 botorekin; eta, hirugarren saria Willy Berasaluzek lortu du (89 botorekin).

Eskerrik asko bozketan parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi!



Kartel lehiaketako irabazleak: Willy Berasaluze (hirugarren saria), Nere Oria (lehenengoa) eta Joseba Ander Madina (bigarrena).



KOLOREZ BLAI UDALEKUAK

Gure abestiak dioen bezala, "Lara lara lara la la... barre, irri ta algara, dantza, jolas eta kantua...". Eta halaxe ibili gara herriko txokoak alaitzen! Guztia primeran atera da eta udara zoragarria pasatu dugu Deba eta Itziarko haur zein gazteok!

Eskerrak ematen dizkizuegu gure amets txiki hau posible egin duzuen guztioi, parte hartu duzuen guztioi eta batez ere Zuhatza Euskara Elkarteari eta Debako Udalari, gudan jarri zenuten konfiantzagatik. 30 egunetan, txiki izatetik erraldoi izatera pasa baita gure koloretako amets txikia!!! Mila esker eta hurrengo urtera arte!

Kolore Anitz Aisialdi Taldea



Ander Salegi



Ander Salegi





Gipuzkoako Gaztenek Saria Nerea eta Miriam Arrizabalagari

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko nekazaritzaren sektorean sartu diren gazteei esker ona erakusteko Gaztenek sariak banatzen dira. Oraingo honetan hiru sari eman dira, 2009an aurkeztu eta 2012an finkatu diren hiru proiekturi, eta sarietako bat Itziarko Doniene baserriko Nerea eta Miriam Arrizabalagak jaso dute –Gorka Asurmendi arabarra eta Arkaitz Biritxinaga bizkaitarra ere saritu dituzte–.

Doniene baserria Itziarko Egia auzunean dago eta batez ere berotegiko eta aire zabaleko baratzezaintzan jarduten dute. Ekoizpen ekologikoaren erregistroan izena emanda dauka, 1551 zenbakiarekin, eta bere produktuak kontsumo taldeen bitartez saltzen ditu, inguruetan zein Debako azokan ere.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek bultzatutako eta HAZI Fundazioak kudeatutako ekimena da Gaztenek, eta nekazari gazteak euskal nekazaritzaren alorrean sartu eta bertan jarraitzea ahalbidetuko duten hainbat neurri modu koordinatuan bultzatzeko helburua du. Gaztenek sarien arduradunek zera nabarmendu dute Nerea eta Miriam Arrizabalaga saritzeko orduan: “Lanerako duten gaitasuna eta baserri tradizional bat aurrera ateratzeko irmoki egin duten lana baloratu da; izan



ere, baserriari ikuspegi modernoa eman diote, balio tradizionalak eta oso ikuspuntu berria uztartuz, ez bakarrik produkzioari dagokionez, salmenta moduan ere bai, eguneroko lanean oinarrituta eta oso inbertsio mugatuarekin. Gainera, erakutsi dute sektorearekin oso inplikatura daudela, foroetan eta erakundee-tan oso aktiboki parte hartuz (gaur egun Miriam Biolurreko lehendakaria da), bai eta pentsaera irekia dutela ere, produktu berriak bilatuz eta beraiekin esperimentatuz eta ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko harremanak indartuz”.

Kirol jarduerak, irteerak... hamaika bizipen Gaztelekuarekin!



Ekintza ugari eta ezberdinak burutu ditugu uztaile honetan Gaztelekutik. Donostiako Santa Klara uhartean izan ginen eta egun paregabea igaro genuen. Bestalde, duela egun gutxi, Zubietan izan gara aurten Txapeldunen Liga jokatuko duen Errealari bisita egiten, ea maila onean dauden ikusi eta beraiekin argazki batzuk ateratzen.

Donosti Cupen ere aritu gara. Oso txapelketa polita burutu genuen, lehenengo fasea pasa eta final hamaseirenak ere irabazi baikenituen. Final laurdenetan, Mercedarios izena duen talde katalan batek kanporatu gintuen, ondoren txapelketa irabaziko zuen taldeak.



Futbolarekin jarraituz, Deba eta Bergara arteko partida bat ere jokatu genuen –ondoren, hondartzan bainu bat hartzen bukatu zuten batzuek–.


2. mailakoekin Frantziako Arcachon ur parkean ere egon gara, urtero bezala. Bertan, gazteek oso ongi pasatzen dute eta emozioz beterik aritzen dira beti!

Bukatzeko, Zarauzko Volley txapelketan parte hartu, erakusketak zaindu, Getariako hondartzan paddle-ean ibili eta Hondarribira 2 egunetako irteera ere burutu dugu, eta eguraldia beti lagun!! A ze uztaile!!

Gaztelekuko Hezitzaileak



Ehunmilak, barrutik ikusita



“Duintasunetik pixka bat eta apaltasunetik asko daukan proba bat da Ultra distantzia”

Uztailaren 12an eta 13an jokatu zen Ehunmilak ultra traila, Euskal Herriko mendi lasterketa luzeena eta gogorrenetarikoa. Bertan aritu zen lehian Igon Mancisidor debarra, eta 12. postuan sailkatu zen azkenean (Zorionak!!). Lasterketan bizi izandakoaren kronika egin dio *Berriketan-i*, probaren nondik norakoak eta bere esperientzia personala kontatuz.



Ehunmilak Euskal Herriko Ultra traila da, 168 kilometro eta 22.000 metroko desnibel metatua duena. Laugarren edizioa izan da aurtengoa eta 287 parte-hartzailek hartu zuten irteera Beasainen. Honen anaia txikia Goierriko 2 Handiak (88 km) ere ospatu zen era berean; guztira 625 lagun bi proben artean.

Bi proba hauek aurrera eramateko ezinbestekoa da laguntza, boluntarioak dira bertako altxorra: 1.200 lagun aritu ziren lanean lasterketak zeharkatzen dituen 29 herrietan zehar. Atzerritar batzuekin hitz egin ostean, harriturik gelditzen dira herrietan eta anoa-postuetan egoten den giro onaz eta animazioaz.

Lasterketan derrigorrezkoa da larrialdi bat izanez gero sostengu materiala eramatea; NANA, motxila, litro bat ur, janari erreserba, txaketa iragazgaitza, praka luzeak, bi kopetako linterna eta pila joko bat, biziraupen manta bat, bisera, txilibitua, benda itsasgarria, telefonoa...

Ehunmilak mendi martxa eta lasterketa baten fusioa da; intentsitate aldetik ez da gogorra, batez ere psikologikoa da. Aurrerakariak gaintu baino norberak bere indarrak eta gaitasunak neurtzeko aukera da, kilometro asko dira eta bakoitza bere lekuan jartzen du mendiak. Lasterkariak bere erritmoa ezagutu behar du eta momentu txarretarako prest egon. Nire ustez trukerik ez dago, jan eta edan ugari eta oinak zaindu sarritan arropa aldatuz.

Ostiralean arratseko 6etan abiatu ginen Beasaindik, tximista eta trumoi

ekaitza lagun eta bero itsasgarriarekin. Azpeiti aldera abiatu ginen Zumarraga, Elosua, Azkaratetik eta Xoxotetik barna. Azpeitia (km 53, 02:00 am), hemen indarberritu eta jendearen animoekin Zelatun gainera. Gauak badu bere xarma, bakar-dade momentuak gozatzeko burua distraitu behar da, musika, barne pentsamenduak... dena erabili behar da oinetako minetatik ihes egiteko.

Tolosako kiroldegia (km 77, 05:30), bertan anoa-postu garrantzitsua, dutxatu, aldatu, ondo jan... indarberritu abiatu nintzen Jazkue gainera Aralar bidean.

Lehen eguzki printzekin nahiko txukun Txindokiko lepoan agertu nintzen goizeko 10ak aldean, erritmoa lasaitu nuen Ganbo zeharkatzean txakalaldi zantzuak agertzen ari ziren eta. Lareoko urtegia albo batera utziz Lizarrustira (km 116). Bertan beste anoa-gunea, berriro jan eta edan, sargori zegoen, bero...

Lizarrustitik Etxegaratera doan bidea baso eder batetik igarotzen da eta normalean paseo eder bat litzatekeena lasterketaren puntu honetan erabat gogaikarria izan zen, gora eta behera denbora guztian, gogorra!

Nahiko pattal eta indarge Etxegaratera iritsi nintzen (km 130), neurriak hartu behar ziren, makarroi plater bat, litro bat edari, fruta, arrautzak, gainera Gurutze Gorrikoei txorkatilik bendatzeko eskatu nien tendoi batzuk handituta nituelako. Ordu erdiren ostean indarberri-

turik abiatu nintzen, 38 km falta, asko eta gutxi.

Ttipi-ttapa Aizkorri gaina harra-patu nuen “kalbario” bidetik: bertan lanbroa, eguzkia, isiltasuna, ederra momentua... gora oso gustura, behera sufritzen, txorkatilik, belauak...

Oazurtza (km 148) hornidura postua eta azken txanpa! Mutiloa bitarteko 10 kilometroak oso luze egin zitzaizkidan, txakalaldia areagotzen, oinetatik sufritzen... Whatsapp-a begiratu eta familia eta lagunengan animoak, a ze bultzada eman zidan horrek! Nire semearen hitz batzuek txakalaldiak jartzen zaituen egoera *groggi* horretatik atera ninduten eta pozik eta amorrus azken 10 kilometroak bizi egin nituen, indarrak agertu ziren nonbaitetik...

Helmugan azkenean 28 ordu eta 44 minutuan: 12. postuan, aurten egindako entrenamenduarekin espero ez nuen emaitza txukuna. Bukatzean, lasaitasuna, poza, Ehunmiletako bidaiaren momentuak birgogoratu, familia eta lagunengan zorionak... eta batez ere deskantsatzeko gogoia.

Horrelako probetan norbera muga-mugako egoeretara iristen da, barruan ditugun eta ezagutzen ez ditugun baliabideak erabili behar dira, momentu txarrei aurre egin! Ultra distantzia duintasunetik pixka bat eta apaltasunetik asko daukan proba bat da.

Ezagutu zure mugak!!

Igon Mancisidor

JON ARRANTZALE GAZTEA

Bazen behin Lekeitioko herrian txikitatik arrantzalea izan nahi zuen gazte bat, Jon izenekoa. Txikia zenean bere osaba eta bera osabaren txalupan arrantzara joaten ziren eta Joni asko gustatzen zitzaion.

Oso itsaso txarreko egun batean Jonen osaba arrantzara joan zen, olatu handiek eta haize indartsuak itsaso zabalera eramane zuten eta ez zen Lekeitioko portura gehiago itzuli. Horregatik, Jonek bere osabaren omenean arrantzalea izan nahi zuen.

Jon gazte indartsu eta altu bat zen, begi marroiak, ilea motz eta laburra zeukan. Oso ausarta zen, ez zion itsasoari batere beldurrik.

Egun batean, Lekeitioko portutik paseatzen zebilela, marinel zahar bat ikusi zuen bere itsasontzian arrantzara irteko prestatuta eta Jon bere ondotik pasatzean marinelak esan zion:

-Aizu, gazte!! Hurbildu hona.

-Kaixo, zer nahi duzu?

-Gustatuko al litzazuke nire itsasontzian lan egitea? Ez daukat laguntzailerik eta zahartuta nago itsasora bakarrik ateratzeko— esan zion marinelak.

-Bai, irrikatan nago arrantzalea izateko.

-Bale, pozten naiz laguntzailea dudalako, nahi baduzu gaur bertan hasiko zinateke.

-Hamar minutuan hemen nago— eta Jon ziztu bizian etxera joan zen arroparen bila.

Egun hartan itsasora ateratze bidean marinelak bere arrantza teknikak irakatsi zizkion: arrantzarako leku eta koordinada egokiak, amuetan janaria zein formatan jartzea zen egokiena, marinelek betidanik erabili izan dituzten korapiloak... eta, halako batean, hariak berrikusten ari zirela, hariak apurtuta zegoela ohartu ziren. Marinelak ez zenez ondo ikusten, bi

hariak elkartzeko korapiloa egiteko esan, baina Jonek ez zekien nola egiten zen eta marinelak korapiloa nola egin azaldu zion eta gero jarraibide testu bat eman zion etxean praktikatu zezan.

Bi hari elkartzeko korapiloa:

1. Lehenik eta behin bi harien puntak elkarren ondoan jarri kontrako aldeetara begira.

2. Hari punta bat hartu eta borobil bat egin bestearen ondoan.

3. Aroa duen hari beraren punta hartu eta aro bertatik pasatu beste aldera begira dagoen hari tartean ipinita. Sei aldiz pasa eta gero, haritik tiratu eta korapilo txiki bat geratuko zaigu.

4. Ondoren beste aldearekin prozesu bera egin.

5. Bi korapilo txikiak eginda daudenean, bi harietatik tira eta korapilo handiago bat geratuko zaigu.

6. Indarrarekin tiratu ondoren ez bada apurtzen, listo dago arrainen pisu handia jasateko.

Egun euritsu batean marinelak Joni deitu eta inguruan atun ikaragarriak zebiltzala esan zion, baina oso itsaso txarra zegoen; hiru metroko olatuak eta haize indartsua. Jonek bi aldiz pentsatu gabe baietz esan zion eta goizeko zazpitan atunak arrantzatzera joan ziren. Itsaso zabalean atun asko harrapatzen ari ziren, baina oso arrisksua zenez portura bueltatzea erabaki zuten. Itsasontzian pisu gehiegi zegoenez, olatuak barrura sartzen ziren; horregatik, kargaren zati bat uretara bota zuten. Portura hurreratzeko olatu handiek haizetara gero eta gehiago bultzatzen zituzten eta haitzak jotzeko arriskuan egon ziren. Portuan erabaki zuten ez zuela merezi arrantzarengatik bizia arriskuan jartzea eta handik aurrera ez ziren gehiago arrantzara joan halako itsasoarekin.

EGILEA: IBON ETXABE (1.ZIKLOA)

HAU ALDAGURE GIZARTEA?

Telebista piztu eta GH audientzia buru dela ikustea?
Eskolara joan eta horri buruz jendea hitz egiten entzutea?

Whats app-ik ez duzulako zure lagunentzat ez oharretza?
Kalera irten eta arratsalde osoa Wifi zona batetan pasatzea?

Albisteak ikusi eta gizon batek emakume bat hil duela jakiteak edota jendea lapurretan ari zaigula jakitea eta ezer egin ahal izatea?

Gure politikariek zin egiten dutena entzutea eta azkenean zertan bukatzen den ikustea?
Errege etxeak nahi duena egin eta ondoren gezurtatzea?

Jendeak gimnasioan egunero bi ordu pasatzen dituen, burua hutsa duen eta zakarra den pertsona bat alboan nahiago izatea gizaki jator, langile eta jakintsu bat baino?

Gizartea gizakiok eraikitzen dugu, gure jokaerak eta berekoikeriak alde batera utziz eta denon arteko lana eta erabakien bidez mundu hobe bat eraiki dezagun.

EGILEA: PAULE ARANBERRI (1. ZIKLOA)

GOIZ LUZE ETA ILUN BAT

Kaixo,

Iker naiz eta 23 urte ditut. Gaur triste nago, atzo bezala, herenegun bezala, orain dela hilabete bat bezala... eta triste egotearen arrazoa azalduko dizuet, ipuin baten moduan azalduko dut. Hauek aspaldiko kontuak dira, orain dela hamabost urteko kontuak hain zuzen ere. Duela hamabost urte, egun honetan, 1998ko maiatzaren 16an gertatutakoaz. Hastera noa:

“Txikia nintzen, 8 urte nituen eta egunero moduan goizean goiz jaiki nintzen, 8:00ak aldera. Jaiki orduko itxura txarra hartu nion egunari. Ez zegoen eguzkirik, ezta txorien kantu hotsik ere, goizean jaiki eta pertsiana igotakoan jolasean ibiltzen ziren katuak ere falta ziren. Baina, hala eta guztiz ere, nik normaltasun osoz hasi nuen eguna. Komunera joan, aurpegiko makarrak kendu eta sukaldera joan nintzen. Bertan aita itxoiten nuen, nirekin batera gosaltzeko zain, beti ordu berean jaikitzen bainintzen. Ama eta arreba, berriz, lotan zeuden, oso lotiak dira eta. Gosaltzen bukatu genuenean aitak eta biok, ontziak garbitu, ama eta arrebarentzat dena prest utzi eta ni eskolako lanak egitera eta aita salara periodikoa irakurtzera joan zen.

10:00etan aita logelara etorri zitzaidan, hamarrak zirela esanez eta lehenengo arreba esnatu eta gero hirurok batera ama esnatuko genuela esanez, nire amaren urtebetetzea baitzen. Arrebaren gelara joan ginenean, atea poliki-poliki ireki eta aitak pertsiana igotzen zuen bitartean, nik muxu goxo-goxo bat eman nion. -Irati, esnatu, amaren urtebetetzea da eta hirurok batera esnatuko dugu, azkar- esan nion.

Oraingoan berehala jaiki zen, sekula baino azkarrago, besteetan ordu eta erdi bat behar izaten zuen baina oraingoan bost minututan jaiki zen eta aitak eta nik txalotu egin genuen irribarretsu.

-Oso ondo, Irati, ederki- esanez.

Azken oparia sukaldean utzi genuen, bazkaltzeko baitzen. Amaren janaririk gustukoena, patata tortilla; guk egina. Nola egin genuen azalduko dizuet:

OSAGAIAK:

-Patatak -Tipula

-Arrautzak -Gatza

-Olio

NOLA EGIN:

1-Zartaginean olio berotu.

2-Patatak eta tipula txikitu.

3-Ondoren patatak eta tipula zartaginean bota eta frijitu.

4-Frijitzen ari diren bitartean, plater batean arrautzak bati-tu.

5-Frijituta daudenean arrautzetara bota.

6-Gatza bota eta nahastu dena batera.

7-Jarraian nahastutako dena, berriro, zartaginean botatzen da.

8-Eta, azkenik, eginda dagoenean, platerera atera, eta, garrantzitsuena, jan.

Beste bi opariak hartu, nik bat eta Iratik bestea, eta aitak kandela eskuan zuela sartu ginen aita eta amaren koartora. Ni ohearen izkina batean ipini nintzen eta Irati bestean, biok ama besarkatuz. Amak begiak zabaldu zituenean, “zorionak zuri” kantatzen hasi ginen.

-Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak!!!!...- kantatu genuen zarata handirik atera gabe.

Bukatu genuenean, lehenengo kandela itzali zuen, hori bai, hamar mila putz egin ostean, erdi lo baitzegoen eta ondoren opariak banan-banan eman genizkion. Lehenengoa ireki zuen, zapi laranja dotore bat zen lepoan ipintzeko. Bigarrena irekitzera zihoanean, izugarritzko iskanbila entzun genuen. Portaletik zetorren. Bat-batean gure etxeko atea blaut! lurrera bota zuten. Irati eta ni oso ikaraturik. Ama gure indar guztiarekin estutu genuen, baita berak gu ere. Aita, berriz, gure aurrean zegoen gu babesteko. Lauron aurpegietan beldurra islatzen zen. Gelara soldadu itxura zuten izakiak sartu ziren, armak eskuetan, porrekin, kaskoekin... Telebistan ikusiak nituen behin baino gehiagotan, denbora guztian izugarritzko indarkeria erabiltzen zuten. Jendeak “zipaio” izena erabiltzen zuen, polizia hitza erabili beharrean. Gelara sartu zirenean, aita lepotik heldu eta armairuko kristalaren kontra bota zuten. Kristala txikituta utzi zuten, baina aita are gehiago.

Gure aurrean izugarritzko jipoia ematen ari ziren aitari, ostikadak, ukabilkadak... denetik. Gu hirurok bitartean ikaragarritzko sufrimendua genuen gorputzean, aitari ematen zioten golpe bakoitzean ziztada bat sentitzen nuen bihotzean. Negarrez ari nintzen, baita Irati eta ama ere. Momentu horietan sentitzen nuena adierazi ezina zen. Amak gelatik alde egiteko esan zigun, salako mahaiaren ertzean esertzeko, han salbu egongo ginela. Baina ezin genuen, alde egiten saiatzen ginen bakoitzean “zipaioek” bultzatuz lurrera botatzen gintuzten. Aita mugitzeko ere gai ez zenean, larru gorritan, odolatan eta jipoitua laga ostean, ama mototsetik heldu, fuerte tira eta arrastaka eramane zuten, tartean ostikadak joaz. Agurtzeko ia denborarik ez genuen eduki. Iratik eta nik nola edo hala muxu eman genion, baina aitak ezin izan zion muxurik ere eman, ezta agurrik esan ere. Aitaren ondoan eserita geundela, zipaioek gure ama nola eramaten zuten ikusi genuen, pasilloan zehar nola ezkututzen zen, aitari, Iratiri eta niri malkoak masailean behera jaisten zitzaizkigun bitartean”.

15 urte dira gaurko egunean etxetik eramane zutenetik; oraindik ere ez da itzuli, kartzelan dago, Malagan, hemendik 900 bat kilometrora. Baina, hala eta guztiz ere, gure arteko maitasuna ez da aldatu; are gehiago, handiagoa bihurtu da. Fisikoki asko aldatu da, eta ahul dago, baina, hala ere, gure aurrean irribarrea adierazten du beti. Oraindik ere goiz ilun eta luze hartan guk oparitu genion zapia ez du kendu, lepoan darama, segundo bakar batean kendu gabe.

Historiak aurrera jarraitzen du, ez da bukatu, baina lasai egon, lagunok, zoriotsu bukatuko da eta.

EUTSI GOGOR AMA, ASKO MAITE ZAITUGU.

EGILEA: BEÑAT ESCUDERO (1. ZIKLOA)

EZINEZKOA DA

Ni lurrean nago zu zeruan zaude ni etxean nengoen zu kalean zeunden ni mutil zu neska niri haragia zuri arraina nik katuak zuk txakurrak niri kirola zuri irakurketa niri hondartza zuri mendia niri ura zuri ardoa ni zutaz zu nitaz gurea ezinezkoa da gure artekoa ezin da.

EGILEA: OIER BERISTAIN (2. ZIKLOA)

ALDABA JOKA

“Frankoren tropek Gernika bonbardatu zutenean, Zumaian nengoen neskame...”. Horrela zioen jaso zuen azken eskutitzak. Gutun hau irakurtzean sekulako lasaitasuna sentitu zuen Pellok. Bonbardaketa hartan baserria, gurasoak... galdu zituen arren, oraindik bazuen zerbait, oraindik bazuen arreba bat. Hamar hilabeteren buruan etxera itzultzeko aukera izan zuen. Ez zuen izebarik ez aitona-amonarik, ezta senitartekorik ere, 21 urte zituen eta bakarrik zegoen.

Jaioterrira joan zen lehenengo. Dena txikituta zegoela ikustean sekulako amorrua eta tristura sentitu zuen. Bere baserria zegoen lekura joan zen. Hondakinen artean, gazteagoa zenean Martinari oparitu zion panpina bilatu zuen, erdi erreta.

Gernikan ikusitakoa oraindik sinetsi ezinik, Donostiara joan zen eta hango hotel batean hartu zuen ostatu. Bazkalostean, taxi bat hartu eta Zumaiara joan zen, Martinak, bere arrebak, azken gutunean zioenez han lanean ibilia baitzen. Herriko plazan utzi zuen taxilariak. Ez zebilen jende askorik. Agure pare bat, plazako izkina batean kafea hartzen, mutiko batzuk egurrezko zalditxoekin jolasten eta plazan bueltaka zebilen apaiz bat. Apaizarengana zuzentzea erabaki zuen, bere lana zela eta herriko jende gehientsuena ezagutuko zuen itxaropenarekin.

-Egun on, apaiz jauna!

-Baita zeuri ere!

-Zera, galdetu nahi nioke... Nola esan... Nire arreba Martina Arrietaren bila nabil. Ezagutzen du?

-Noski ezagutzen dudala.

-Oraindik hemen dabil lanean?— galdetu zion Pellok itxaropenez beteta.

-Ez. Zoritxarrez intentzio txarreko txutxu-mutxuak zirela eta nagusiek etxetik bota zuten eta azkenerako herritik alde egin zuen.

-Eta badaki nora joan zen?

-Ez, baina ziur nago okinaren alabak badakiela. Oso lagun onak ziren.

-Milesker laguntzagatik apaiz jauna, hurrengo bat arte.

-Jauna zurekin!— egin zion adio apaizak.

Okindegirantz abiatu zen. Barruan ez zegoen jende askorik. Salmahai atzean bibotedun gizon lodi bat eta ile marroiko neskatxa gazte bat zeuden. Pelloren txanda iristean, Martinaren anaia zela azaldu zion neskatxa gazte hari. Barrura pasatzera gonbidatu zuen eta kafea eta pastak atera zizkion.

-Beraz, zu zara Martinak hainbeste miresten zuen neba?

-Neu izango naiz.

-Pozten naiz ezagutzeaz, asko hitz egin zidan zutaz.

-Egia esan, beti izan da oso hiztuna. Baina gauza bakar batengatik etorri naiz hona. Martinaren berri jakin nahi dut.

-Gaixoa, ezin izan zuen jendearen ahotan egon izana jasan eta Zestoara joatea erabaki zuen. Eta han izan zuen haurra.

-Haurra! Baina nolatan?

-Bazenekiela uste nuen!— kafeari zurrutada bat eman eta honela jarraitu zuen—: Kontua da, Zumaiara etorri eta gutxira, esne saltzailearen semea ezagutu zuela. Hura egunero pasatzen zen Martina neskame zebilen baseritik esnea banatzen. Jendeak bazekien bien artean zerbait zegoen.

la,
agerikoa zen.

Pixkanaka, Martinari buruz gaizkiesaka hasi zen jendea eta handik gutxira Martina haurdun zegoela herri osoan zabaldu zen. Hasieran, ez zion garrantzi handirik eman, jendea kontu horietaz laster nazkatuko zela pentsatuz. Baina egun gutxiren barruan, negarrez azaldu zen, maleta txiki bat eskuan zuela. Malko artean kontaktu zidan berria; bere nagusien etxera iritsi zenean handik ostikoka bota zutela.

-Baina azkenean egia zen, haurdun zegoen?

-Bai, haurdun zegoen. Nik uste nuen txutxu-mutxuak besterik ez zirela, baina azkenean Martinak dena aitortu zidan. Bi hilabete eta erdi zeramatzen haurdun. Eta ez zion inori ezer esan. Gaixoak dena isilean eraman zuen. Hizketaldi luze baten ondoren egokiena Xabierri, esnebanatzailearen semea, dena esatea zela pentsatu genuen. Gau hartan bertan bere etxera joan eta dena kontatu zion— hozten hasia zegoen kafeari beste zurrutada bat eman zion—. Eta orduantxe erabaki zuten Zestoara joatea. Xabierrek lagun bat zuen han eta hark etxean hartu zituen.

-Oraindik han dago, esadazu baietz mesedez.

-Bai, han geratu ziren biak. Xabierrek lan berri bat bilatu zuen arren, ez zuen diru askorik lortzen eta Martinak etxetik kanpora lanik egiten ez zuenez ez zuten etxe baten errenta ordaintzeko beste. Nahi baduzu, helbidea emango dizut.

-Biziki eskertuko dizut.

Okinaren alabak papera eta bolaluma hartu zituen eta idazteari ekin zion. Pellok, bitartean, kati-luan gelditzen zitzaion kafe apurra edan zuen trago batez. Mila aldiz eskerrak eman ondoren, okindegitik atera zen. Iluntzen hasia zen. Martina ikusteko gogo handia zuen, baina hala ere pentsatu zuen hobe izango zela hotelera itzuli eta lo apur bat egitea arreba ikusi aurretik.

Goizean goiz esnatu, dutxa azkar bat hartu eta gosaldia ere egin gabe Zestoarantz abiatu zen taxian. Bat-batean, gaztetako irudi bat etorri zitzaion burura, ama Martinari errietaka ari zen. Etxetik ateratzean kuleroak kendu eta harri baten azpian uzteagatik, fresko-fresko ibiltzearen. Ondoren beste irudi bat etorri zitzaion. Martina kopotar baten gainean zegoen, babak aletzen. Kantuan. Beti eskatzen zion kantatze-ko, horrelako lanak egiten zituztenean.

Konturatu baino lehen iritsi zen Zestoara. Urduri zegoen. Taxiak zuzenean eraman zuen, okinaren alabak esandako tokira. Aldaba jo eta apur batean itxaron zuen. Mutil gazte batek ireki zion atea.

-Egunon!— agurtu zuen gizon hark.

Pellok ezer esan aurretik han agertu zen Martina, haurra besoetan zuela eta inoiz baino ederrago. Emakume bihurtua. Biek elkarri besarkada handi bat eman zioten. Martinak ezin izan zion negarrari eutsi. Minutu apur batzuk pasa zituzten elkar besarkatzen ezer esan gabe.

Martina izan zen isiltasuna hautsi zuena. Pello barrura gonbidatu zuen eta kafea egin artean Martina kantuan hasi zen.

**EGILEA: MADDI ASTIGARRAGA
(2.ZIKLOA)**

SAN ROKEAK 2013



1967ko San Roke dantzako irudiak dira goiko hauek. Bertan ikus daitekeen bezala, emakume dantzariak ere aritu ziren urte hartan soka-dantzan.

Emakumezkoak ere arituko dira aurten San Roke dantzan

lazko abuztuaren 16a egun oso garrantzitsua izan zen emakumeentzat eta batez ere Gure-Kai dantza taldea osatu duten eta osatzen duten emakumezkoentzat. San Roke ermitaren inguruan, herriaren aurrean Gure-Kai dantza taldeko San Roke dantzako mutilek kapitainen makilen "erreleboa" eman zieten taldeko neskei aurtengo dantzako sokan parte har zezaten. Ondorioz, aurtengo jaietako berritasunetako bat horixe izango da: San Roke dantza gizonezkoek eta emakumezkoek dantzatuko dute. Festen egitaraua ez ezik, dantzariak idatzitako lerro hauek ere ekarri nahi izan ditu *Berriketan* aldizkariak abuztuko ale honetara:

Ostirala, arratsaldeko 4ak. Jubilatuen elkarteko jostintza gelara lanerako prest dagoen jendea bildu da. Patroiak telen gainean zabaldu eta guraizeak hasi dira bere lanean.

2012ko San Roke egunetik Gure-Kai Euskal Dantzari Taldea lanean dabil buru-belarri herriko jendearen laguntzarekin aurtengo San Roke egunerako. Gure-Kaik, San Roke dantzaren urte luzeetako zaindaria, pasa den urtean erabaki garrantzitsua hartu zuen eta San Roke dantzan emakumeak txertatzearen aldeko apustua egin zuen. Lan gogor eta zehatza izan da azken sei hilabeteetako, neurriak hartu, patroiak egin, haria moztu, lortzak, ojalak, botoiak... ostiralero hari artean.

Dantzariok San Roke eguna biziki eta goizeko lehen ordutik gozatzen dugu. Patroiari eginiko promesa mantenduz, San Roke dantza den ondare galduzinak aurrera jarrai dezan urte luzeetan. Aurtengoan harro dago taldea bizi dugun mende-ari dagokion eguna izango delako, taldea ia bere osotasunean dantzan jarriko da, makila zuri-gorriek gizonezko zein emakumezkoen eskuak lotuz.

Ibilbide hau aspaldi hasi zen Gure-Kairentzat, "San

Roke Dantza, magia eta erlijioa" DVDa kaleratu zuen eta bertan egun horretan isilpean lanean aritzen diren zenbait herritarren testigatza argitara atera zuen. Beranduago "San Roke Dantzako Kofradia" ere sortu zuen dantza hau zein Jorrai-dantza herriko jendearengana gehiago hurbiltzeko. Ibilbide honen hurrengo bidegurutzeta: San Roke Dantza gizonezko eta emakumezkoen dantza izatea. Lan honetarako Oier Araolaza dantzari eta antropologoaren laguntza izan dugu. Soka-dantzen inguruko ikerketan dabil eta, ikerketa horien zenbait ondorio taldeari aurkeztu ondoren, gidari izan dugu erabakiak hartu beharreko orduan.

Ezin ahaztuko ditugu jostunak ere, eta hemendik esker-erak eman nahi dizkie taldeak horrenbeste ordu bolondreski eta beraien jakintza guztia Gure-Kai Taldeari eskaini dizkieten jostun horiei guztiei. XXI. mendera iritsi gara ohiturak mantenduz eta, mendeetan zehar Euskal Herrian lana egin izan den bezala, auzolanean.

OHITURAK MANTENDUZ, DANOK DANTZARI!!!

Gure Kai E.D.T.



Abuztuak

14

18:00:

Kanpai errepika eta udaletxeko balkoitik Aitzuri Abesbatzako kideek txupinazoa botako dute San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin zapi gorria jarriko zaio San Rokeri.

Jarraian: Kalejira, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udaltzako elizara abiatuko da Alkate Soinuaren entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko ditu. Ondoren, Hilarion Eslavaren salbea abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: Danborrada Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

00:30: Erromeria karpan, GOZATEGI taldearekin.

09:00: Diana, Banda Gaztearekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

10:00: Entzierroa, umeentzako.

11:30: Kalejira Luzaro eskolatik, Plaza zaharrean San Roke Txiki agurtuko da bertso eta dantzekin.

Abuztuak

15

Umeen Eguna

Ondoren, desfilea plaza zaharretik zezen plazara.

12:30: Jaialdia: danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak. Ondoren, Deban jaio berriei ongi-etorria egingo zaie; zapi gorria jarriko die alkateak udal pleno aretoan.

14:30: Herri bazkaria (karpan).

16:00: Puzgarriak, txalupak eta futbolin erraldoia Simon Berasaluze plazan, 3 urtetik gorakoentzat. BATTLEFIELD LIVE (paint-ball antzekoa; pilotak eta pinturaren orde, laserra), Foruen Plazan 9 urtetik gorakoentzat.

18:00: Jokuak karpan.

19:30: Umeen pilota partidak, Aldats pilotalekuan.

00:00: Kontzertua: EH SUKARRA eta SEN.

07:00: Diana, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

09:30: Gure Kai Taldekoen Ezpata Dantza plaza zaharrean, San Rokeren irudiaren aurrean. Jarraian, Udaltzako beste herritar guztiak batera ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, Larrain Dantza egingo da plaza zaharrean (Lizarrako Gaiteroekin, erraldoiekin eta buruhandiekin).

12:30: Aureskua Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

Abuztuak

16

San Roke Eguna

13:30:

Kalejira Eghoak txaranga-ekin.

18:00: Bertso saioa karpan.

18:00: Haurrentzako antzerkia (Zurumuru Taldearen "Pantxika eta txinparta" antzezlana), Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko Puerto de San Lorenzo (Salamanca) ganadutegiaren eskutik. Ondoren, kalejira Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

20:30: Kontzertua, karpan. Iker Vela, Borja Lekube eta Mattin Urbietarekin.

23:30: Sufestak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

00:00: Kontzertua, karpan: RINBARAN.

06:30: Kardantxulo Kantuan eta Oria Txaranga. Irteera plaza zaharretik.

10:30: Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

11:00: Kalejira, Oria txarangarekin.

12:00: Kukaña eta baltsa jaitsiera, portuan.

12:15: Estropadak, Deba-Mutriku.

13:30: Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak eta Kardantxulo Kantuan, kaleetan zehar.

15:00: Bazkari herrikoia karpan.

18:00: Kalejira, The Joselontxo's Txaranga eta Lizarrako Gaiteroekin, karpantik plazara.

18:30: Entzierroa. Ondoren, gazte kuadrilen arteko jokoak plazan.

19:30: Adinekoentzat dantzatzeko musika, Simon Berasaluze plazan.

22:00: Kontzertua, plaza zaharrean: MAITENA MONACO eta FERMIN BALENCIA

07:00: Diana, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

10:00: Artisau eta baserriko produktuen Feriaren hasiera.

11:00: Ongietoria Kanboko ordezkari.

11:00: Jubilatuen elkartean udalak eskainitako hamaiketako hirugarren adinekoentzat. Trikitilariak bertan izango dira, eta bitartean arratsaldeko zezenketarako bederatzi sarrera bikoitz zozketatuko dira.

11:30: Kalejira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko taldeekin.

11:45: Pilota partidak, Aldats pilotalekuan.

12:30: Enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

13:30: ZAZPIAK BAT musika eta dantzariekin, Arakistain Plazan. Arabatik: Azparren Dantza Taldea (Araia) eta Aguraingo eskualdeko txistulariak; Bizkaitik: albokalariek; Gipuzkoatik: Debako trikitilariak; Nafarroatik: Zazpitan Lehena jotera; eta Iparraldetik: Jeikadi Dantza Taldea (Kanbo).

18:00: Mus Txapelketa, karpan.

18:00: Umeentzat ekitaldia, Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa: Tamameseko Puerto de San Lorenzo (Salamanca) ganadutegiaren eskutik.

20:30: Erraldoi eta buruhandien Agurra plaza zaharrean, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

23:30: San Roke festen amaierako kalejira.

00:00: San Rokeren irudiari ohiturazko zapi gorria kenduko zaio.

Abuztuak

17

Mariñel Eguna

23:30:
Larrain Dantza,
plaza zaharrean.


00:30: Kontzertua, karpan:
HESIAN, ITZIARREN SEMEAK eta
TALKO.

Abuztuak

18

Iparraldea
Deba-Kanbo


SAN RO KE AK 2013



SAN ROKE JAIK
ABUZTUAREN 14tik 18ra 2013 DEBA

*Aurtengo jaietako kartela duzue goikoa.
Aritz Loiolarena da.*

**ABUZTUAREN
14TIK 18RA**



Agenda

Abuztuak 10, larunbata



-Yako Jaixa. Debako Yako Surf Eskolak lehenengo aldiz antolatu du itsasoko jarduerkin lotutako festa hau. Ekimen ezberdinak burutuko dira arratsaldeko 16:00etatik aurrera: Surfa, arraun surfa, skate longboard eta slakline ikastaroak (doan), erakustaldiak, barba-koa Ondarbeltzeko txiringitoan, zozketak, musika...

Abuztuak 11, igandea



-Dolmenen Ibilbidea, Debegesa eta Debanatura elkartearen ekimenez. Bisitariak artzain-kulturaren aztarnak ezagutuko ditu ibilbide horretan barrena, Karakate-Irukurutzeta mendilerroan. Trikuharri eta tumulu multzo baliotsua ikusteaz gainera, bertako produktuak dastatzeko aukera eskainiko zaie parte-hartzaileei. Irteera 10:00etan izango da Sorraluzen, Karakateko apartakalekuan. Informazioa eta izen-emateak: Debanatura Elkartea: 943 19 11 72 // 695 78 36 56.

Abuztuaren 14tik 18ra

-Debako San Roke jaiak. Egitaraua aldizkari honetako 15, 16 eta 17. orrialdeetan duzue.

Abuztuak 30, ostirala

-19:30. Azken ostirala. Preso eta iheslari politikoen aldeko ekitaldia, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Irailak 7, larunbata

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.
-Margo lehiaketa. Udalak eta Haitz Haundik antolatuta.

Irailak 10, asteartea

-Lasturrek San Nikolas jaiak hartuko ditu. Egitarau berezia antolatuko dute.

EUSKAL JAIA 2013



IRAILAK 28, LARUNBATA:
Egun osoko egitaraua izango da: dantzak, musika, marmitako lehiaketa, herri bazkaria, erromeria... Urtero legez, base-rritarrez jantzi eta euskal giroan murgiltzeko deia egingo zaie herritarrei. Beraz, adi! Guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!

XXX. UDAKO MUSIKALDIA
SANTA MARIA ELIZAKO KLAUSTROAN

-Abuztuak 22, osteguna: Judith Jauregi (pianoa).

-Abuztuak 29, osteguna: Teresa Albero (sopranoa) eta Erik García (pianoa).

*Oharra: Musikaldiaren baitan antolatutako emanaldi guztiak klaustroan burutuko dira, eta iluntzeko 20:30ean emango zaie hasiera.



Udako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegi berezia izango du irailaren 9a arte.

*Liburutegi orokorra: astele-

henetik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berri-
z, 10:00etatik 13:00ak arte.

Keixetaren erakusketa, Elizako klaustroan

-Txiki Agirre, Keixeta (Arroa, 1963) artistaren erakusketa ikusgai dago abuztuaren Elizako klaustroan. Autoreak koadroak eta eskultura lanak aurkez-

ten ditu bertan, "Barneratzeko guneak" izenburupean.

Erakusketa egunero dago ikusgai, Elizako ordutegian: 9:30etik 13:00etara.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: abuztuak 23, 24, 25.
irailak 2, 3, 4, 5, 20, 21, 22.

Burgoa Zuazo: abuztuak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22.
irailak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19.

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 24 eta 31
BURGOA ZUAZO: abuztuak 10 eta 17
irailak 7 eta 14

9:30 - 13:30



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA




ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka, 20820 DEBA
943 029 186



AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

Zugandik ZUGANA



haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



BURU - ZURI

Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia

Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

JAIETAN ETA OPORRETAN ERE EUSKARAZ BIZI!!



Udara Kulturaz blai
Olentzero eta Mari Dominguiaren bisita

Euskal egutegia

Bertsogintza Mintzalagunak
Olentzero eta Mari Dominguiaren bisita

Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Olentzero eta Mari Dominguiaren bisita
Literatur lehiaketak
Udara Kulturaz blai
Berriketan aldizkaria

Euskal Jaia

Literatur lehiaketak
Udara Kulturaz blai
Olentzero eta Mari Dominguiaren bisita
Euskal Jaia

Berriketan aldizkaria

Literatur lehiaketak
Kolore Anitz Aisialdi Taldea
Bertsogintza
Euskal egutegia

Mintzalagunak

Euskal Jaia
Literatur lehiaketak
Mintzalagunak
Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Udara Kulturaz blai
Berriketan aldizkaria
Euskal egutegia
Bertsogintza
Olentzero eta Mari Dominguiaren bisita

Berriketan aldizkaria

Euskal Jaia
Literatur lehiaketak
Udara Kulturaz blai

Kolore Anitz Aisialdi Taldea

emaiozu
euskarari |
dale a1 euskeral



ONDO PASATU SAN ROKE JIAK!!

2013-2014 ikasturtea
Matrikula zabalik irailaren 2tik 27ra.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Ifar kalea 12,
Telefonoa: 943 192236
e-posta: debabe@telefonica.net



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
ikasturteacurso 13/14

